

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2984

111/2015 DEKRETUA, ekainaren 23koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kideak kargutik kentzeko eta beste batzuk izendatzeko dena.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren urriaren 13ko 3/2011 Legearen bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua sortu zen, izaera administratiboko erakunde autonomo gisa; lege horren 7.1 artikulua xedatzen duenez, Administrazio Kontseilua aipatutako erakundearen gobernu-organo goren da.

Bestalde, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onetsi ziren; estatutu horien 6.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, Administrazio Kontseilua honako kide hauek osatuko dute:

- a) Lehendakaria, enpleguaren arloan eskumena duen saileko titularra.
- b) Lehendakariordea, enpleguaren arloan eskumena duen sailburuordetzako titularra.
- c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia.
- d) Eusko Jaurlaritzak izendatu, eta, hala badagokio, kargutik kenduko dituen bi bokal, enpleguaren arloan eskumena duen sailak proposatuta.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten sindikatuen ordezkari izango diren bost bokal. Bost bokal horiek aipatutako sindikatuek aukeratuko dituzte, eta Jaurlaritzak izendatuko, dekretu bidez.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten enpresaburuen elkarten ordezkari izango diren bost bokal. Bost bokal horiek aipatutako elkarteek aukeratuko dituzte, eta Jaurlaritzak izendatuko, dekretu bidez.

Era berean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko estatutuen 6. artikuluko 5. paragrafoan ezarzen denez, Eusko Jaurlaritzak 5 ordezkari izendatu ahal izango ditu, eta horiek titularrak ordeztu ditzakete titular-postu bat hutsik dagoenean edo titular bat bertaratu ez denean edo gaixorik dagoenean.

Azaroaren 29ko 253/2011 Dekretuaren bidez (2011ko abenduaren 12ko EHAA, 233. zk.), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kideak izendatu ziren, betiere hura arautzen duen legean agindutakoarekin bat etorriz.

Apirilaren 22ko 334/2013 Dekretuaren bidez (2013ko maiatzaren 3ko EHAA, 84. zk.), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kideak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ordezkatzeko dutenak, berriro izendatu ziren azken aldiz.

Gaur egun, dekretu horren bidez izendatutako ordezkari bokaletako batek, Xabier Iñigo Ochandiano Martínez jaunak, bere kargu publikoa utzi du, eta kargu hori betetzea zen, hain zuzen ere, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kide izendatzeko oinarria. Horrela, bada, kide hori kargutik kendu behar da eta ordezkari bokal berria izendatu behar da.

Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2015eko ekainaren 23an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kide hau, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari zena, kargutik kentzea:

Xabier Iñigo Ochandiano Martínez, ordezko bokala.

2. artikulua.– Honako hau Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kide izendatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari gisa:

Amaia Arteaga Dañobeitia andrea, Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako zuzendaria, ordezko bokal gisa.

3. artikulua.– Dekretu honek onesten den egunetik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko ekainaren 23an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
ANGEL TARSICIO TOÑA GÜENAGA.